



EAJ
PNV

DEBAGOIENA

DEBAGOIENAKO GARRAIO PUBLIKOIA HOBETZEKO PROPOSAMEN INTEGRALA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. GASTEIZERAKO AUTOBUS-LINEEN BERRANTOLAKETA	3
3. BAILARAKO LOTURA EGITURATZAILEAK	5
4. BILBO ETA DONOSTIARAKO LINEEI BURUZKO HAUSNARKETA	7
5. HERRI TXIKIAK GERTURATUZ.....	9
6. AZPIEGITURAK ETA ERABILERRAZTASUNA HOBETZEKO NEURRIAK	11
7. GERALEKU ETA GELTOKIAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	12
8. ERANSKINAK	13

1. SARRERA

Debagoienako eremu funtzionala Euskal Autonomia Erkidegoko erdialdean dago; zehazki Gipuzkoako hego-mendebaldean. Ekialdean, Goierriko eremu funtzionalarekin egiten du muga, hegoaldean Araba Erdialdearekin, iparraldean Debabarrenarekin eta mendebaldean Durangaldearekin.

Bederatzi herrik osatzen dute eskualdea (Arabako Aramaio kontuan hartzen bada) eta eremu funtzionalak guztira 60.000 biztanle inguru ditu. Eremu funtzionala kokatuta dagoen testuinguru naturalean hiru lurralde-eremu homogeen daude: Bergaraldea (Bergara, Antzuola eta Elgeta); Oñatialdea, Oñati ibaiaren haran osoa hartzen duena; eta Leintz Bailara, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga batzen dituen, Deba ibaiaren goi-ibilguarekin batera.

Debagoienako eskualdeak, EAEren baitan duen zentralitatea kontuan hartuta, kokapen estrategikoa dauka hiriburuen arteko bidegurutze delako. Gainera, muga egiten du Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoekin eta, hortaz, gure eskualdeko garraio-sisteman bultzatzen den edozein aldaketak gainerako eremu-funtzionalak eduki behar ditu kontuan ezinbestean. Zalantza barik, bertako garraio publikoaren kalitatea funtsezkoa da herritarren mugikortasun eskubidea eta bizi-kalitatea bermatzeko.

Debagoiena da, Urola-erdiarekin batera, tren bidezko garraioa ez duen Gipuzkoako eskualde bakarra. Ondorioz, errepide bidezko garraioa da zerbitzu publikoa emateko modu bakarra. Gaur egungo garraio-sistemak, ordea, agerikoak diren hainbat gabezia ditu; puntualtasun-, edukiera- eta segurtasun-arazoak kasu. EAJ-PNVtik gauzatu dugun azterketa batetik abiatuta, eta bertako hainbat herritar eta eragilerekin egindako kontraste-lan baten ostean, identifikatu diren premiei aurre egiteko neurri ezberdinak jasotzen dituen honako proposamen-txosten hau prestatu dugu.

2. GASTEIZERAKO AUTOBUS-LINEEN BERRANTOLAKETA

Gaur egungo lineen berrantolaketa egitea komeni dela uste dugu EAJ-PNVtik; izan ere, hiru linea daude antzeko ibilbidea egiten dutenak (geraleku gehiago edo gutxiagorekin), baina momentuko eskariari erantzuten ez dizkiotenak. Seguruenik, beste garai bateko beharrianak oinarri hartuta diseinatu ziren zerbitzu hauek. Horren aurrean, joan-etorriak ahalik eta modu lehiakorrenean egiteko proposamena da gurea. Batez ere, ibilbide zuzenagoak edo tarteko geldialdi gutxiago dituztenak ezartzeko aukera planteatzen dugu, ibilbidearen iraupena egokitzeko.

Zehatz-mehatz, DG05A linea bitan zatitzea edo horretatik bi sortzea da EAJ-PNVren planteamendua, bidaia-denborak egokitu eta puntualtasuna bermatzeko. Gainera, proposamen honen beste helburuetako bat da Eskoriatzako eta Aretxabaletako herritarrek haietzako lekua edukiko dutela ziurtatzea. Gaur egun, ordu jakin batzuetan, DG05 linea Aretxabaletako geralekuetara iristen denerako, eta zer esanik ez Eskoriatzakoetara, autobusak beteta doaz eta askotan herritarrak kanpoan geratzen dira. Horrez gain, Oñatik Arabako hiriburuarekin lotura zuzena edukiko luke berregituratze berri honekin.

Proposamenaren funtsa izango litzateke, alde batetik, egungo DG05A lineari Ermua, Eibar eta Bergara ezabatu eta Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatza gehitzea. Beste alde batetik, DG05E linea berria sortuko litzateke, zeinak, Ermua, Eibar, Sorluze eta Bergara lotuko lituzke Gasteizekin zuzenean. Modu honetara lineak zuzenagoak izango lirateke, Leintz Bailarako herritarrei zerbitzua erabiltzeko aukera erraztuko liekena; autobusa Oñatitik etorriko litzatekeelako, eta Eibarko nahiz Bergarako jendeak beste linea hartuko lukeelako.

Jeltzaleok azpimarratu nahi dugun beste aspektuetako bat da asteburuetan ez dagoela Gasteizerako zuzeneko autobus-zerbitzurik. Hau da, Debabarrenako eta Debagoienako herritarrak ordubete eta erdiko/ordubeteko bidaia egitera behartuta gaude zapatu edo jaiegun baten Arabako hiriburura joateko. Argi eta

garbi, hau ez da bidaia-denbora lehiakor ezta erakargarria ere. Gainera, hori ez da gertatzen Donostiarako eta Bilborako kasuetan. Aste barrurako egin dugun bi lineen planteamendua asteburuetan ere mantentzea beharrezkoa ikusten dugu (maiztasun txikiagoekin bada ere). DG05E linearen kasuan, irteera guztiak Ermuatik (Bizkaia) egitea edo irteera horien kopurua handitzea komenigarria den aztertu beharko litzateke.

Bestalde, DG05D linea mantentzea proposatzen dugu EAJ-PNVtik, baina egungo DG05 linearen ordutegiekin, geraleku gutxiagorekin, asteburuetan ere aste barruko maiztasunak mantenduz, eta Leintz-Gatzagako herrigunetik pasatuz. Zerbitzu honen helburua bikoitza izango litzateke: bailarako herriak elkarren artean lotu eta Debagoiena Arabako herriekin eta hiriburuarekin lotzea. Hala ere, Arabako herri txikietatik pasatzearen kontua hausnartzekoa dela uste dugu, izan ere, apenas igotzen edo jaisten da erabiltzaileren bat. Agian, udan zentzu gehiago dauka padurara doan jendeagatik.

3. BAILARAKO LOTURA EGITURATZAILEAK

Batetik, Gasteizerako proposatzen dugun lineen berrantolaketak hainbat albo-ondorio eragingo lituzke eta horiei konponbidea emateko, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Egungo DG05A linea bitan zatitzeak, Arrasate eta Eibar elkarren arteko lotura azkar barik lagako lituzke. Horregatik, DG11 linea bere ibilbideko herri bakoitzeko geraleku nagusienetan bakarrik gelditzea (San Prudentzio barne) proposatzen dugu eta zerbitzuak asteburuetan ere funtziona dezala. Linea honen helburua bailarako herrigune nagusiak modu arin batean lotzea izango litzateke eta, beraz, Ermua (Bizkaia) ere linea honetan sartzea komenigarria izan daitekeela uste dugu.
- Modu berean, DB06 linea Bergararaino luzatzea (Osintxutik pasata) proposatzen dugu; batez ere, Debagoiena eta Debabarrenaren arteko lotura hobetzeko. Horrez gain, DG05 linearen desagertzeak Osintxuri ekarriko liokeen maiztasun-galera konpentsatuko litzateke.

Bestetik, eskualdeko herrien arteko maiztasunak indartzeko beharra hauteman dugu EAJ-PNVn, baita Goierriekin lotzekoa ere:

- Bergara eta Eskoriatza lotzen dituen DG10 linearen maiztasuna, aste barruan, egungo 30 minututatik 15-20 minutura pasatzea eskatzen dugu; asteburuetan, ostera, egungo 60 minututatik 30-40 minututara pasatzea. Arrazoi nagusiak bi dira: lehena, linea hau dela eskualdea argi eta garbi gehien egituratzen duena; bigarrena, trenaren faltan autobusa dela Debagoienako garraiobide posible bakarra. Nolanahi ere, DG10 eta DG05D lineen arteko osagarritasuna zaintzea eskatzen diogu Aldundiari, bestek beste maiztasun horiek lortzen lagun dezakeelako. **EUSKOTREN**
- Bergara eta Oñati arteko lotura hobetzea premiazkoa da jeltzaleon ikuspuntutik. Bi herrietatik jaso dugun eskaera da hau. Oñatiko Udalarik bertako herribusa San Prudentzioraino heltzeko eskaera egiten jarraituko

diogun arren, Aldundiak Bilborako DG01 linearen maiztasunak areagotzearekin batera hobe dezake lotura hori. Azken helburua da Oñatik lotura izan dezala San Prudentziorekin 15-20 minutuko, eskualdeko gainerako herriekin parekatze aldera. Maiztasun hori lortzeko, osagarritasuna bilatuko da Lurraldebusko eta Udalaren herribuseko zerbitzuen artean.

- Inportantea deritzogun beste kontuetako bat Debagoiena Goierriko eskualdearekin lotzea da, Urola Garaia bitartez. Horretarako, gure proposamena da egungo DG03 linea, alde batetik, Beasainera luzatzea eta, bestetik, Arrasateraino. Hau da, Arrasate-San Prudentzio-Bergara-Antzuola-Zumarraga-Beasain. Horrekin, Antzuolak ere Arrasaterekin eta bertako ospitalearekin lotura zuzena edukiko luke. **EUSKOTREN**

EUSKOTREN: Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren arteko balizko lankidetzaren formula bati buruzko proposamena lantzen ari gara. Kontuan hartuta:

- a) Debagoienaren kokapen estrategikoa: EAEn hiru hiriburuen bidegurutzea, eta Araba eta Bizkaiarekin muga egiten duen Gipuzkoako eskualdea,
- b) Bere garaian eduki bazuen ere, tren bidezko garraiobiderik ez duen Gipuzkoako eskualde bakarrenetakoa dela, errepide bidezko garraio publikoa izanik aukera bakarra,
- c) 60.000 biztanle inguru dituen eremu-funtzionala dela,

Desabantaila-konparatibo hori gainditzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa, Euskotren sozietatearen bidez bere ekarpena egin dezan gure eskualdea bi trenbide-nodoen (Eibar-Euskotren / Beasain-Renfe) arteko errepide bidezko konexioaren eskaintzan. Azken finean, DG11 linearen finantzazioaz eta Arrasate-San Prudentzio-Bergara-Antzuola-Zumarraga-Beasain linea eskaintzeko premia ari gara.

4. BILBO ETA DONOSTIARAKO LINEEI BURUZKO HAUSNARKETA

Gaur egun, lau linea daude Debagoienatik Bilbora; Lurraldebusk eskaintzen dituen hiru (DG01, DG02 eta DO03) eta Bizkaibusek Arrasatetik eskaintzen duen bat; Donostiarako joan-etorriari dagokienez, ordea, bi dira zerbitzua eskaintzen duten lineak (DG07 eta DO03). Hala ere, nabarmendu behar da DO03 linea Donostia eta Bilbo artekoa dela berez, eta Gipuzkoa barnealdeko herri txiki askori ematen diela aukera bi hiriburu horiekin lotzeko. Linea hau modu oso baikorren baloratzen dugu.

Hori esanda, EAJ-PNVn Bilborako lineen inguruan egin dugun hausnarketatik hainbat ondorio atera ditugu. Hasteko, DG02 lineak Bizkaibusek Arrasatetik ematen duen zerbitzuaren antzeko ibilbidea egiten duela konturatu gara. Horregatik, uste dugu egokiagoa izango litzatekeela:

- DG01 linearen maiztasunak areagotzea, eta irteera guztiak Oñatitik egin ditzala. Oñati ibilbideko lehen eta azken geralekua izango litzatekeenez, ez lioke zerbitzuaren bidaia-denborari eragingo.
- Bizkaibusek Arrasatetik Bilbora gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak ez dira nahikoak. Horregatik, beharrezkoa deritzogu Bizkaiko Foru Aldundiarekin berba egiteari aste barruko maiztasunak indartu ditzan, eta asteburuetan ere zerbitzua eskain dezan.
- Aldaketa eta hobekuntza horiek lortuta, DG02 linea ezabatu ahalko litzateke.

Donostiarako zerbitzuen kasuan, oro har, ondo baloratzen dugu DG07 linearen egitura, nahiz eta badauden hobetu daitezkeen aspektu batzuk; hala nola, puntako orduetan dauden edukiera-arazoei edo gehiegizko bidaia-denborei lotutakoak. Edozein kasutan, azpimarratu nahi dugu konponbidea bilatu behar zaiola Oñatik Donostiarako lotura zuzena ez izatearen arazoari. Alegia, DG07 linearen abiapuntu eta helmugei dagokienez, honakoak hobetu beharko lirateke:

- Oñati eta Donostia arteko joan-etorri zuzenak egiteko (autobus-aldaketa egin barik) eguneko lau bat zerbitzu eskaintzea. Batez ere, aukera hori goizean goiz, eguerdian eta arratsean bermatzea eskatzen digute herritarrek.
- Lineak dituen Eskoriatzako irteera eta iritsiera kopurua handitzea orokorrean, eta asteburuetan bereziki.

5. HERRI TXIKIAK GERTURATUZ

Eskualdeko herri txikien artean, gaur gaurkoz Antzuola eta Elgeta dira Arrasateko ospitalearekin zuzeneko loturarik ez duten bakarrak. Antzuolaren kasuan, arestian aipatu dugun DG03 linea Beasain eta Arrasatera zabaltzeko proposamenarekin konponduko litzateke gabezia hori. Hala ere, DG03 linea luzatzeko proposamena ez balitz egokitzat joko, beste aukera alternatibo bat landu dugu Elgetakoarekin batera.

Elgetak, berriz, Bergaratik joan-etorria egiteko berariazko linea bat (DG20E) edukitzea baino, zentzu gehiago ikusten diogu ordu jakin batzuetan DG10 linea Elgetaraino luzatzeari. Jakina, egungoak baino maiztasun gehiago ziurtatuz. Horrenbestez, EAJ-PNVk proposatzen du:

- DG10 lineak, aurretik aurkeztu dugun maiztasunen areagotzea kontuan hartuta, behintzat ordu bakoitzean behin Elgetan hasi eta amaitu dezala ibilbidea. Horrela, Elgetak bermatuta izango du lotura eskualdeko herrigune nagusiekin (Bergaratik Eskoriatzaraino) eta hain azpiegitura inportantea den ospitalearekin, aldi berean. Asteburuetan Elgetarako luzapen hori bi orduan behinekoa izatea ondo ikus genezake.
- Ondorioz, DG20E linea kentzea.
- DG03 luzatuko ez balitz, aurreko bi puntuen logika bera mantenduz, DG10 linearen irteerak eta iritsierak, 30-40 minutuko eta modu txandakatuan, Antzuola eta Elgetatik egitea izan daiteke beste konponbideetako bat.

Leintz-Gatzagak ospitalerako konexioa du, baina aste barruan eta egunean behin bakarrik. Gaur egungo zerbitzua ez da nahikoa, argi eta garbi. Aurretik proposatu dugun DG05D linea berrituarekin, Leintz-Gatzagak maiztasun handiagoa eta etengabeko konexioa izango lituzke Arrasate, ospitalea eta Gasteizekin. Beraz, planteamendu horrekin, EAJ-PNVk DG21E linea kentzea proposatzen du. Azkenik, uste dugu komenigarria dela Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera aztertzea Elgeta

Elorriorekin lotzeko aukerak, eta Arabakoarekin balorazio bat egitea Aramaio eta Arrasate arteko lineari buruz.

6. AZPIEGITURA ETA ERABILERRAZTASUNA HOBETZEKO NEURRIAK

Debagoienako garraio publikoaren kalitatea bermatzeko, ezinbestekoa da teknologia eta garraio azpiegiturak modernizatzea, erabiltzaileen esperientzia hobetzearekin batera. Helburua da erabiltzaileen beharrak asetzea eta garraio publikoa aukerarik erakargarriena bihurtzea. Horrela, hainbat ekintza proposatzen ditugu:

- a) Ordaintzeko sistema hobetzea, on-line edo banku txartela eta mugikorrarekin erosteko sistemaren funtzionamendua egonkortzea, eta adinekoei erraztasunak ematea.
- b) Mugi txartelen karga-arazoak konpontzea: makinaren mantenimendua bermatu eta telefono bidez ordaintzeko aukera garatzea.
- c) Lotura-geltokiak koordinatzea: autobus-lineen ordutegiak bateragarri egitea, posible den heinean, erabiltzaileek autobus-aldaketak erosotasunez egin ahal ditzaten.
- d) Bergarako Herribusa Mugi sisteman sartzea adostu dugu udal gobernuarekin. Sistema bateratuan integratuta ez dagoen eskualdeko herri bakarra da. Jarraipena egingo diogu errealitate egin dadin.
- e) Zerbitzuak indartzeko beharra dago autobusak oso beteta doazelako ordu jakin batzuetan; hain zuzen, puntako orduetan. Asteburuetan, gainera, ikasleek hiriburuetara egiten dituzten joan-etorriengatik lineak saturatu egiten dira. Sarritan, ikasleak billete barik geratzen dira.
- f) Autobusen puntualtasun hobetu. Autobusak denbora errealean geolokalizatuta egotea ezinbestekoa da, informazio-paneletako estimazioak egokiak izan daitezen, eta erabiltzaileek ere, aplikazio bidez horiek kontsultatzeko aukera izan dezaten.
- g) Webgunea bera gaizki dabil: billetea erostea amesgaiztoa da, eta txartela birkargatzeko egun bat baino gehiago behar izaten dira.
- h) Autobusen mantenimendu falta dago orokorrean.
- i) Geldialdia eskatzeko botoia hondatuta egon izan da autobus batzuetan.

7. GERALEKU ETA GELTOKIAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Debagoienako autobus geltoki eta geralekuen egoera hobetzeko, hainbat aspektu izan ditugu kontuan EAJ-PNVn: besteak beste, jasangarritasuna, komun publikoen eskuragarritasuna, garbitasuna eta irisgarritasuna. Eskualdeko udalerrri bakoitzak bere azpiegitura eta zerbitzuak dituenaz, diagnostiko orokor bat egitea zaila da, baina zenbait gomendio orokor proposatzen ditugu jarraian:

- **Irisgarritasuna:** Geralekuek irisgarritasun unibertsala bermatu behar dute, mugikortasun urriko pertsonentzat egokiak izanik. Arrapalak, igogailuak eta seinaleztapen egokia instalatzea beharrezkoa da. Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako sarbideak eta seinaleztapen argia eta ulergarria instalatzea.
- **Jasangarritasuna:** Autobus geltokien jasangarritasuna hobetzeko, energia-eraginkortasuna handitu eta ingurumen-inpaktua murrizteko neurriak har daitezke. Adibidez, berrurbanizatzeko proiektuak, autobus-geltoki modernoagok eta erosoagoak edukitzeko helburuarekin. Baita geltokietan LED argiztapena eta energia berriztagarriak erabiltzea ere, hala nola eguzki-panelak, energia-kontsumoa murrizteko.
- **Komun publikoak:** Autobus geltokietan komun publikoen eskuragarritasuna funtsezkoa da bidaiarien erosotasunerako. Geltoki nagusietan komun egokituak instalatzea gomendagarria da, eta horien mantentze-lanak eta garbitasuna bermatzea ezinbestekoa da.
- **Garbitasuna:** Geralekuen garbitasuna eta mantentze-lanak ezinbestekoak dira erabiltzaileen esperientzia hobetzeko. Paperontzi nahikoak eta hondakinak bereizteko ak jartzea gomendatzen da, baita garbiketa-maiztasunak egokitzea ere.

8. ERANSKINAK

Gasteizko lineak berrantolatzeko proposamenaren eskema:

(Lanegun eta jaiegunetarako)

~~DG05A~~

~~(ERMUA)~~

~~EIBAR~~

~~BERGARA~~

OÑATI Posta geltokia

SAN PRUDENTZIO

ARRASATE Zalduspe+Kontseziño

ARETXABALETA Errekabarren 8/Nafarroa kalea

ESKORIATZA Eduardo Gorosarri

GASTEIZ

~~DG05E~~

(ERMUA) Bizkaia etorbidea

EIBAR Ego Gain/San Juan+Bidebarrieta/Urkizu

SORALUZE Estaziño/Errebal

BERGARA Ibargarai geltokia

GASTEIZ

Urdinez: gaur egungoa

Gorritz: proposamena

(Lanegun eta jaiegunetarako)

~~DG05D~~ (Egungo DG05 linearen ordutegiekin eta geraleku gutxiagorekin)

EIBAR

SORALUZE

BERGARA

SAN PRUDENTZIO

ARRASATE

ARETXABALETA

ESKORIATZA

LEINTZ-GATZAGA

LANDA

ULLIBARRI

ARROIABE

MENDIBIL

DURANA

GASTEIZ



eaaj
pnv

DEBAGOIENA

